

Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hamazazpiko abenduaren 13an**, goizeko zortziak eta erdiak direlarik **aparteko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

JOSU GARMENDIA RECALDE  
DANIEL OYARZABAL LARRABURU

Eta Udal honetako alkate, **UNAI LOIARTE ANSA**

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezkari idazkaria.

Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du.

**1. 2014-2020 urteetako “programa de desarrollo rural” -aren 2017ko lehenengo deialdian diru-laguntza eskaera: “Adecuación de edificio público Tifanitxo en Goizueta” obra.**

Goizuetako Udalak, **2014-2020 urteetako “programa de desarrollo rural” -aren 2017ko lehenengo deialdian diru-laguntzaren** oinarriak azterturik, aho batez erabaki du:

1.- **“Adecuación de edificio público Tifanitxo en Goizueta”**, memoria baloratua onartzea, eta 2014/2020 urteetako “Programa de Desarrollo Rural-aren 2017ko lehenengo deialdiko diru-laguntza eskatzea.

Diru-laguntza eskatzeko udalak aurkeztu behar duen dokumentazioaren artean “Moderación de Costes” izeneko dokumentu bat aurkeztu behar du. Dokumentu hau idatzia eta inprimatua dagoen moduan, obra esleitzeko aurreikusten duen prozedura bakarra, kreditu erreserba eta dagokion fakturaren aurkezpena da.

Idazkariak udalbatzari ohartarazten dio, aipatutako esleipen prozedura horrek ez duela balio Goizuetako Udalak sustatuko duen **“ Adecuación de edificio público Tifanitxo en Goizueta”** exekuzio proiektua esleitzeko. Obraren aurrekontua BEZ-rik gabe 86.200,89€takoa izanik memoria baloratuaren arabera, Goizuetako udalak, Ekainaren 9ko 6/2006 Kontratu Publikoen Foru Legearen 73.2 c) artikulua agintzen duen prozedura, Europar Batasuneko Publizitaterik gabeko prozedura edo ta 65 artikulua agintzen duen, Europar Batasuneko Atalasetik beherako prozedura irekia jarraitu ahalko luke obra esleitzeko.

2.-Idazkariaren oharraren jakinaren gainean, udalbatzak aho batez erabaki du, Gaztetxearen birgaitze obra proiektua 2014/2020 urteetako Programa de Desarrollo Rural-aren 2017ko lehenengo deialdiko diru-laguntzan onartzen bazaio, udal honek, **“Adecuación de edificio público Tifanitxo en Goizueta”** proiektua egikaritzeko, ekainaren 9ko 6/2006 Kontratu Publikoen Foru Legearen ahalbidetzen dizkion legezko prozedurak erabiliko dituela proiektua esleitzeko.

Goizeko bederatzia laurden gutxi direnean alkateak bukatutzat eman du bilera, nik, idazkariak ziurtatzen dudalarik.